

## NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

## Nafarroak eta Pirinio Atlantikoeak mugaz gaindiko lankidetzaren indartzeko beren bokazioa azpimarratu dute

*Barkos eta Lasserre lehendakariak bilkura instituzional bat egin dute Iruñean eta, aldi berean, mugako bi aldeetako ordezkariak bildu dira*

Viernes, 11 de marzo de 2016

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos eta Pirinio Atlantikoeak Departamentuko Kontseiluko lehendakari Jean Jacques Lasserre Nafarroako Jauregian bildu dira gaur goizean; bertan, mugen bi aldeetan 2017ra arte mugaz gaindiko lankidetzaren indartzeko beren bokazioa azpimarratu dute, eta urte horretan hitzarmen berria negoziatuko da.



Uxue Barkos eta Jean Jacques Lasserre.

Gaurko bileran mendiko gaiek izan dute protagonismo berezia, mendialdeko bizilagunen bizi-baldintzak hobetzea, esaterako, bertako errepideetan pilatutako elurra kentzea, abeltzaintza, mendizaleak erreskatatzeko lanak edo txirrindularientzako pistak egitea.

Lasserre lehendakaria eta bere taldea Iruñean egon izana eta astean zehar bi ordezkariak egindako lana eskertu ondoren, Barkos Lehendakariak, mugak, bereizi baino gehiago batu egiten duela ziurtatu du. Nafarroa euroeskualean berriz sartzeko berriki sinatutako akordioa ere gogora ekarri du (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Akitaniarekin batera).

Jean Jacques Lasserrek, bestalde, gaurko bilerak Pirinio Atlantikoeetarako duen garrantzia nabarmendu du, eta Nafarroako agintariak egindako harrera beroa eskertu du bi lurraldeek sinatutako hitzarmenak hamabi urte betetzen dituen.

### Etengabeko harremanak

Uxue Barkosek gogoratu duenez, mugen bi aldeetako biztanleen arteko harremanak etengabeak dira alor guztietan: harreman pertsonalak, ekonomikoak, hezkuntzakoak edo kirolakoak, eta erakundeen zeregina da harreman horiek sustatu eta bultzatzea.

Pirinio Atlantikoeetako ordezkariak goizeko 11:00etan iritsi da Nafarroako Jauregira, Bertan, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok egin die harrera; hark lehen solairuraino lagundu die, eta han zuten zain Barkos Lehendakaria; Barkos

Lasserre lehendakariarekin bildu da bere bulegoan, eta bi ordezkarietzako gainerako kideek, berriz, lanbilera bat egin dute Lehendakarien Aretoan. Jarraian, bi lehendakariak prentsaurreko bat eskaini dute, eta azkenik, bi ordezkarietak bazkaltzera joan dira.

Pirinio Atlantikoetako ordezkarietak honako hauek osatzen zuten: Jean Jacques Lasserre; finantza, kontratuen politika, lankidetzak eta turismoko lehen lehendakariorde delegatu Max Brisson; lankidetzak eta Europako funtsen kontseilari delegatu Marc Cabane; ekonomia eta berrikuntzako kontseilari delegatu eta euskal mendien ordezkari Jean Pierre Mirande; lehendakariaren kabineteko zuzendari Pierre Lahore; zerbitzuetako zuzendari nagusiaren laguntzaile Daniel Mouliak; kanpoko harremanetako eta lankidetzak kabineteko Eva Lamothe; eta lurralde garapen eta lankidetzako zuzendari Balerie Eloire. Nafarroako ordezkarietak honako hauek osatu dute: Barkos Lehendakaria; Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollak; Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrera; Lehendakarietakaren kabineteko buru Ainhoa Gastearena; Komunikazio eta Nazioarteko Harremanetako zuzendari nagusi Pello Pellejero; Nerea Martínez de Mandojana; Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko idazkari tekniko nagusi Jose Miguel Gorricho eta Lankidetzako Zerbitzuburu Cristina Arcaya.